

Gauzak ongi egitea, gaizki egitea baino askoz hobeto dago. 2008an Pasaian biztanleko 424,5 kg. Zabor bildu genituen, horietako soilik 122,8 birziklatu ziren, hau da % 28,93, 2009an 405 eta birziklatutakoak 127, % 29, 2010an, 405,8, birziklatuak 138,3, % 34,2 %, 2011an 396,5, 133,5 birziklatuak, % 33,6 % eta 2012an, 388,5, 126,6 birziklatuak, % 32,5. Eta hau ondo egotetik urrun dago.

Munduan ondo egiten duten herri eta hirietatik urrun dago, San Francisco, Milán, Liverpool. Málaga, Melbourne, Oviedo, Bruselas, Parma eta Berlín bezalako hirietan birziklatzea lortzen duten %70, 75 edo 80tik urrun.

Beraz, ondo egin nahi badugu begira diezaiozun ondo egiten duenari eta ikas dezagun, beraiek urteak daramatzate eta ondo egiten. Nola biltzen dute han? Ba modu errazenean, **derrigorrezkoa da banatzea, etxean eskuekin (horretarako sortu den makinarik efizienteena) banatuz eta atez ate bilduz, etxetik gertu, ataraietan, eta abar.**

Baina esaten diguten moduan zikinago, garestiago eta gainera gure intimitatearen kontra egiten badu, zergatik egiten dute?

Erantzuna erraza da, ondo egin nahi dutelako da eta orain arte ezagutzen duten sistemarik onena atez atekoa delako.

Eta orduan 5. edukiontzia dela onena esaten digutenean zer ezkututzen digute? Ezkututzen dutena da 5. edukiontzien bidez borondatez biltzen duten herrietan nekez iristen direla %45a birziklatzera. Beraz daukaguna oso gutxi hobetzen du eta hoberen egiten dutenetatik urruti gelditzen dela.

Ondo egin nahi dugu, hobeak izan nahi dugu eta Pasaian gauzak ondo egiten badakigu. Horregatik hoberen egiten duten lekuetan duten sistemari aukera bat ematearen aldekoak gara.

Ondo egitera goaz eta aldaketa honen aurrean ditugun beldurrak erraz gaindituko ditugu. Bide horretan gainera lagunduko gaituzten pasaitarrak ditugu. Donibanen eta Antxon ondo asko baitakite ondo egitea zein gutxi kostatzen den, erraza dela, garbiagoa dela eta egun ditugun edukiontziek baino kirats eta molestia gutxiago sortzen dela.